



Raquel Schumacher - Maddalen Ruesgas - Alazne Palacios
Aixerrota BHI, 15-16

AURKIBIDEA

Toti Mtnez de Lezea	2
---------------------------	---

Sarrera	2
---------------	---

Isilpean gordea

● Kokapena	3
● Gaia	3
● Argumentua	4
● Istorioa	4
● Pertsonaiak	6
● Egituraketa	8
● Baliabideak	8
● Iritzia	9

Bibliografia - Webgrafia	10
--------------------------------	----

Toti Martínez de Lezea



Toti Martínez de Lezea, 1949an Gasteizen jaio zen eta gaur egun Larrabetzun bizi den idazlea da. Euskaraz zein gazteleraz idazten du. Horrez gain, Kukubiltxo antzerki taldearen sortzaile izan zen eta itzulpen lanez gainera, gidoiak, hezkuntzako bideoak eta telebistarako haur saioak egin

zituen, 1983 eta 1992 urteen bitartean.

1986an *Euskal Herriko leiendak* bilduma idatzi zuen. 1998 urtean argitaratu zuen bere lehenengo eleberria: *Judu-kalea*. Haren ondoren beste 22 lan etorri ziren: *Antsoren dorreak*, *Kattalin*, *Hautsi da katea*, *Sorginak...* besteak beste. Idazle emankorra da, eta gazte literaturan ere jardun du. *Errege mezularia*, *Ilargiaren alaba*, *Antso III. Nagusia eta Muerte en el priorato* dira horren erakusgarri. Haur literaturan egin du azken saiakera Nur pertsonaiarekin; obra horietako protagonista idazlearen beraren biloban oinarritua da.

Frantsesera, alemanera eta portuguesera itzuli dituzte beraren lanak, eta hainbat komunikabidetako kolaboratzaile gisa aritzen da.

Sarrera

Toti Martínez de Lezeak belaunaldi oso baten beldurrari eman nahi izan dio ahotza nobela honen bidez. Horretarako, Amelia Zabaletaren testamentuak eragindako ezustekoa darabil, ardura handiz gordetako sekretu bat argitara ematen duena. Jon Martínez de Albeniz ikertzaile pribatua arduratuko da misterioa argitzeaz. Honek 1936ko gerra ondorengo eta aurreko Gasteizko gertaera guztiak ezagutuko ditu, eratzunen bila. Toti Martínez de Lezeak, bere jatorrizko hiriaren barrenak arakutzen ditu, ezagunak zaizkion pertsonaiak sortu eta isiltasun deseroso baten mende bizi zen gizarte bat irudikatzen.

Isilpean gordea

- **Kokapena**

Toti Martínez de Lezeak bere hiriaren barrenak arakatzen ditu, ezagunak zaizkion pertsonaiak sortu eta isiltasun deseroso baten mende bizi zen gizarte bat irudikatzeko. Gasteizen, Arabako Errioxan eta Burgoseko Mena haranean girotutako nobela da *Isilpean gordea*, 36ko gerraren ondorengo urteetan.

2008ko Gasteizen gertatzen da istorioa, Amelia Zabaletaren testamentuak ardura handiz gordetako sekretu bat azalera ateratzen duenean, bere senideak ezustekoan harrapatzen dituena. Sekretu horrek hildakoaren iraganarekin du zerikusia, eta Jon Martínez de Albeniz ikertzailea arduratuko da misterio hori argitzen.

Pertsonaia nagusien artean Jon Martínez de Albeniz (Amelia Zabaletaren semearen bila dabilen ikertzailea), Amelia Zabaleta (hil berri den atsoa, istorioaren protagonista nagusiena), Pepe Aurra (Amelia Zabaletaren lehen senarra eta Miguel Aurraren aita) eta Edurne Olaeta (Jonen neskalaguna eta Felisaren iloba).

- **Gaia**

1936ko gerraren ondoren emakume askok bizi behar izan zituzten injustiziak: adulterioagatik edo ideologia desberdinekoa izateagatik, kartzeletuak ziren eta tratu txarrak jasaten zituzten. Familia gatazkak garrantzitsuak dira eta, denbora oro maitasuna eta engainua agertzen da istorioaren ildo desberdinetan.

- **Argumentua**

Gasteiz, 2008ko otsaila. Amelia Zabaletaren testamentuak agerpen harrigarri eta ezusteko bat atera du azalera: ardura handiz gordetako sekretu bat, hildakoaren iraganari eta haren hurbileneko senideei lotua: Ameliaren semea den Miguel Aurraren aipamena, dirudienez, familiak

ezagutzen ez duena. Hori dela-eta, Jon Martínez de Albeniz ikertzaile xumea arduratuko da misterioa argitzeaz. Nahiz eta Jonek Miguel Aurra aurkitzera eramaten duen pistarik ez aurkitu, Ameliaren istorioa gero eta hobeto ezagutuko du, eta haren inguruko pertsonena ere.

● Istorioa

Istorioa Amelia Zabaletaren heriotzak eragindako ezustekoarekin hasten da. Bere testamentuak sasiko seme baten berri eman du, bere alaba “bakarra” den Elvira Rojas Zabaleta nahasi duena. Egoerak, Jon Martínez de Albeniz ikertzailea kontratatzea eragiten du, erantzunak aurki ditzan.

Jonek, nondik hasi ez zekiela, Genaro Ziprianorekin elkartzea erabaki zuen, azken hirurogeita hamar urteetako zurrumurru guztien berri zuen herritarra baitzen. Elkarrizketa hartatik Ameliak Fernanda izeneko ahizpa bat zuela jakin zuen, moja zena, eta beragana jo zuen.

Fernandak esan zionaren arabera, Ameliak atxilotuta igaro zituen urte batzuk, Pepe Aurrarekin zibiletik ezkondu izanagatik eta seme bat izan zutelako (testamentuan aipatzen den hori). Antza, Amelia kartzelan egon zenetik, ahizpek behin baino ez zuen elkar ikusi. Beraz, Jonek Elvirarengana jo zuen, baina honek ez zion ezer argitu. Ondorioz, Ameliaren haurtzain zen Felisarengana eta txoferra zen Salvadorrengana joan zen; baina lehena Alzheimerrak jota zegoen eta Salvador ez zen oso hiztuna. Bisita hartan, ikerketan lagundu zezakeen familia album bat besterik ez zuen lortu. Behintzat, Felisaren iloba zen Edurne ezagutu zuen, ikerketan laguntza emateko prest egongo dena eta gertakizunak aurrera joan ahala maitemindu egingo dira.

Egun batean, ikertzaile bikotea Edurneren etxean zegoela, Felisaren etxean lapurtzera sartu zirela zioen dei bat jaso zuen. Berehala joan ziren txaletera, Elvirak eta Salvadorrek zer lapurtu zuten behatzeari ekin zioten, Jon ganbarara igo zen bitartean. Bertan, Amelia izena zuen koaderno bat aurkitu zuen, inori ezer esan gabe hartu eta Edurnerekin batera etxea utzi zuen.

Jonek koadernoaren erakutsi zion Edurneri eta informazio gehiago aurkitzeko asmoz, txaletera bueltatzea erabaki zuten. Baina bidean

zeudela, Joserra Uriarterekin egin zuten topo (herriko gizon batekin). Hark, Pepe Aurra bere aitaren lehengusua zela esan zien, biak zirela Ozaetakoak. Beraz, ikertzaile bikotea harantz abiatu zen. Han, emakume batekin hitz egin zuten eta honek Telesforo Uriarte aipatu zien, Pepe Aurraren anaia. Telesforok Pepe Aurraren poemaz beteriko koaderno bat eman zien.

Buruari asko eragin ondoren, Fernandarenera bueltatu ziren. Hamaika galdera egin zizkioten, zenbait urte lehenago Ameliak Burgosetik gutun bat bidali ziola kontatu zuen arte. Aste Santuko oporrak heltzear zeudela aprobetxatuz, oporretan bertara joatea erabaki zuten. Baina ez zuten erantzunik topatu.

Burgosetik bueltatu eta egun batzuetara, Felisa bihotzeko batek jota hil zen. Momentu horretatik aurrera, Jon bere kabuz ikertzen hasi zen, herri ezberdinak bisitatuz zenbait pertsonarekin hitz egiten. Horrela deskubritu zuen ia osotasunean Ameliaren iragana: zibiletik ezkondua zenez espetxeratu egin zuten, han torturatua izan zen (adibiderako: errizino olioia ematen zioten, gerra garaiko ankerkeria). Kartzelatik atera ondoren, neskame lanetan aritu zen Burgoseko etxe batean. Bertan ezagutu zuen Evaristo Rojas, berarekin ezkontzera behartu zuen gizona, bere alaba Elviraren aita. Ezkondua egon ziren bitartean tratu txarrak jasan zituen, senarrak bere enpresako kidea hil zuela jakin zuen arte. Orduan tratu bat egin zuten berriro gainean esku bat jar ez ziezaion.

Halako batean, etxean zegoela, Jon bere izena zeraman gutun bat ikusi zuen mahai gainean, barnean Ameliaren eta bere inguruko argazkiak zituena. Edurnerekin batera, gutunaren igorlea Salvador zela ondorioztatu zuen. Ikertzen jarraitu zuen, Salvador Pepe Aurra zela ohartu zen arte. Haren bila joan ziren, baina ez zuten aurkitu.

Zenbait hilabeteren buruan, Edurne eta Jon Guardiara joan ziren eta han topatu zuten kasualitatez Pepe Aurra. Honek istorioa osatu zien.

Amelia kartzelatik irten eta berehala, bere bila hasi zen. Aurkitzen ez zuenez, lan bat bilatzea erabaki zuen eta, kasualitatez, Evaristo Rojasek bere emaztearen txoferra izateko kontratatu zuen. Horrela, berriro elkarrekin egotea lortu zuten, baina Ameliaren beldurra zela-eta Evaristo Rojas hil eta gero haien harremana ezkutuan mantentzen jarraitu zuten. Behin, Ameliaren medikuak leku hezeago batera joateako

gomendatu zion, hortzeria zuenez bere osasunerako onuragarria izango baitzen. Orduan, senarrak txoferrari bertara eramateko agindu zion eta guztiz sendatu arte Gasteizera ez itzultzea. Hori aukera paregabea izan zen Pepe eta Amelia beraien semearen bila joateko eta aspaldiko partez hirurak elkartzeko.

● **Pertsonaiak**

Aldez aurretik aipatu beharra dago, Toti Martínez de Lezeak obra honetan zenbait pertsonaia erreal hartu dituela, existitzen diren pertsonetan oinarriturik, baina izena aldatuta. Pertsonaia nagusiak besteak beste: Jon Martínez de Albeniz, Amelia Zabaleta, Pepe Aurra eta Edurne Olaeta aurki ditzakegu.

- **Jon Martínez de Albeniz.** Ameliak izan zuen seme gaztearen misterioa argitzen saiatuko den 40 urte inguruko ikertzaile pribatua da, istorioko protagonista den pertsonaia asmatua (aurretik esan bezala, beste batzuk pertsonetan oinarritutakoak dira). 36ko gerraren ondorengo eta aurreko urteetan gertatutakoak ezagutzen arituko da erantzun bila. Hasieran diruak arduratzen duen arren, erantzunak aurkitu ahala, horri garrantzia kendu eta Ameliaren istorioa ezagutu nahi izango du, beste barik. Pertsonaia nahiko sinplea dela aipatu beharra dago: dibortziatua eta diruz eskas dabilen gizona, bera baino hamar urte gazteagoa den neska batekin maitemintzen dena. Baina horixe zen idazlearen helburua, protagonista sinplea sortzea, irakurlea pertsonaiaren paperean sartzeko.
- **Amelia Zabaleta.** Bere testamentuak argitara eman zuen sekretuak ematen dio hasiera nobelari. Bizitza korapilatsua izan zuen emakumea da. Aipatu berri dugun sekretua honako hau da: Pepe Aurrarekin seme bat izan zuen (Miguel Aurra Zabaleta) zibiletik ezkondu ondoren, eta garai horretan debekatuta zegoenez gero, bi urtez atxilotu zuten. Bere egunerokoan idatzi zuenagatik, kartzelan bizi izandako tortura latza izan zen. Espetxetik atera eta urte batzuen burura, Burgosen aritu zen neskame lanetan, Evaristo Rojasekin ezkondu eta Elvira eduki zuten, beraien alaba bakarra.

Amelia Zabaleta beldurturik bizi zen pertsonaia da, bizitza latza igaro zuelako, alegia. Istorioak aurrera egin ahala, bere burua gutxi maite duela agerikoa da; soberan zekien bere senarrak sexu harremanak zituela beste emakume batzuekin, baina sentitzen zuen beldurraren eraginez, nahi zuena egiten uzten zion.

- **Pepe Aurra.** Amelia Zabaletaren lehen senarra izan zen, ezkontza zibil bidez. Gizon kementsua eta burugogorra da, Amelia kartzelatik atera bezain pronto bere bila joan baitzen, aurkitu zuen arte amore eman barik. Kasualitatez, Ameliaren bigarren senarrak (Evaristo Rojasek) txofer bezala kontratatuko du eta hortik aurrera ez da Ameliarengandik bananduko. Aipatu beharra dago, lanpostua hartzeko izena aldatu behar izan zuela eta horregatik deitzen dio jendeak Salvador.
- **Edurne Oleta.** Jon Martinez de Albenizen neskalaguna da, Felisaren iloba. Joni alokairua amaitu zitzaionean, bere etxeko atea zabaltzen dizkiona eta Amelia Zabaletaren ikerketarekin lagunduko duena. Pertsonaia alaia, arduratsua eta eskuzabala da. Horrez gain, bere laneko arazoei irtenbideak aurkitzen dizkie berehala eta ez du uzten bere eguneroko bizitzan eraginik izan dezaten.

Bigarren mailako zenbait pertsonaien presentziak ere garrantzia du istorioan, Amelia Zabaletaren misterioa argitzen laguntzen baitute: Elvira Rojas Zabaleta (Evaristo eta Ameliaren alaba “bakarra”), Miguel Aurra Zabaleta (Ameliaren eta Pepe Aurraren semea), Fernanda (Ameliaren ahizpa), Genaro Zipriano (Jon ikerlariaren laguna), Felisa (haurtzaina)...

• Egituraketa

Autoreak erabiltzen duen egitura lineala da, hau da, ordena kronologiko bat jarraitzen du. Hirugarren pertsonan idatzita dago eta Jon Martíñezek Ameliaren iraganari buruz egiten dituen ikerketa narratzen ditu; izan ere, zenbaitetan Amelia Zabaletaren egunerokoko pasarteak agertzen dira, 30eko hamarkadan idatziak. Kontaketa oso sinplea jarraitzen du idazleak, lineala izateaz aparte istorioa banatzeko kapitulurik erabiltzen ez duelako.

● Baliabideak

Baliabideei dagokienez zenbait aspektu aipatu behar ditugu. Pertsonaien eta lekuen deskribapenak erabili ditu, esaterako:

Berak uste ez bezala, etxeko ganbara ez zen filmetako haiek bezalakoak, iluna, hautses betea. (66)

Narrazioan elkarrizketak erabiltzen ditu:

—Eta zer gertatu zen berarekin?

—Egun batean Meli agertu, eta eraman egin zuen. Bost urte bete berriak zituen. (26)

Idazleak narratzaile orojakile baten bidez kontaktzen du istorioa, hau da, istorioan hirugarren pertsona erabiltzen du, eta narratzaile horri esker pertsonaien pentsamenduak, sentimenduak eta asmoak jakin ditzakegu ekintzak egin aurretik:

Akituta zegoen ondorio argirik atera ezinik hausnarrean ibiltzeaz, eta, horretan jarraitzeko gogorik ez zuenez, afaltzeko patata tortila prestatzera jaiki zen; sofan luze-luze etzango zen, gero, telebistako sail kaskarren bat ikustera. (172)

Baina badago nobelan zehar hainbat salbuespen: Ameliaren egunerokoko pasarteak lehenengo pertsonan idatzita daude, Amelia bera narratzaile delarik:

Eta, orain? bi aste igaro dira, dagoeneko, eta niri ez dit inork ezer esan... Administratzaileak dio alde egin behar dugula, saltzera doazela-eta etxea. (173-175)

Beste salbuespen bat ere badago, Pepe Aurraren poemak agertzen direnekoa. Hauetan metaforak ere agertzen dra:

*Bila nazazu,
txoriak bere habia mola.
Ametsei eutsi eta
ez ditzagun gal inola. (128)*

Horrez gain, pertsona garrantzitzuen aipamenak ere badaude. Benito Lertxundi da agertzen den famatuetakoa bat:

Edurneri SMS bat bidali zion, esanez berandu samar iritsiko zela, eta eleberri bat irakurtzen topatu zuen, tapaki kuadro dunaz estalita eta Benito Lertxundiren diski bat entzuten. (220)

Beste bat Plauto da:

...Plautok Asinaria liburuan utzitako hitzak: Lupus est homo homini, non homo, quom qualis sit non novit. (203)

Azkenik, lexiko sinplea erabiltzen du, hau da, edonork irakurrita ulertuko lukeen hiztegia erabiltzen du. Liburua itzulpen bat da, hots, liburua jatorriz *aquellos que muchos callaron* deitzen da eta gaztelaniaz dago idatzita.

● Iritzia

Nobela irakurri eta b aztertu ondoren, obrari buruzko iritzi sendoa izatea lortu dugu. Beste ezerean aurretik, irakurterraza dela esan beharra dago. Euskara batuan idatzita dagoen gaztelerazkoaren itzulpena da –jatorrizko nobela *Aquello que muchos callaron* da–, eta horrek euskalki arazorik ez sortzea eragiten du. Gainera, erabiltzen duen hiztegia ere sinplea da, lasai irakurtzeko behar den euskara maila ez da beste mundukoa.

Irakurtzen hasi aurretik, tituluari erreparatuz gero, pista asko ematen dizkigu, *Isilpean gordea* da kasu honetan eta suposa dezakegu isilpean gordetako kontu bati buruz arituko dela. Izenburua erakargarria izateak zerikusi handia du liburuaren hautaketan, misterioa deskubritu nahia eragin baitigu. Istorioa mamitsua da, gai interesgarria, intriga pizten duena eta azken momenturarte jakinminez beterik zaituena. Gainera, ikerketak ezusteko amaiera bat du, inork espero ez zuena.

Nobelako misterioa ikertzen duen Jonek, testamenduaren kontua hasten denean garrantzi gehiegi ematen dio diruari, hori da gehien arduratzen duen kontua. Ez du amaren dirua beste inorekin partekatu nahi eta Miguel aurkitu nahi izanaren arrazoi nagusia, lan horrek emango dion soldata da. Baina azkenean, konturatzen da diruak ez duela zorionik ematen eta garrantzizkoena Ameliaren bitzita izatera pasatzen da.

Benetako interesa piztu zaio eta berdin zaio egin beharreko ahalegina zein den erantzunak topatzen dituen bitartean. Aldaketa horrek bizitza errealerako balio digun zerbait irakasten digu.

Kontakizunaren harian Ameliaren egunerokoaren zati batzuk eta Pepe Aurraren poemak agertzen dira. Pasarte horiek lehenengo pertsonan idatzita daude eta nobelako hunkigarrienak dira. Narratzaileek irakurlea euren paperean sartu dadin lortzen dute, bizipenak haien ikuspuntuetik, sentimenduetatik... imajinatzea eta aldi berean bizitza eraginez.

Itzulpenari dagokionez, ez da oso egokia. Asko nabaritzen da itzulpena dela. Hiztegia une batzuetan korapilatsua da, ohikoak ez diren hitz pilo bat erabiltzen ditu. Agian, hobe da, lexiko errezagoa erabiltzea, irakurlea harrapatu ahal izateko.

Laburbilduz, gai oso interesgarria lantzen du nobela honek. Gure garaian ez dugu honelakotik jasan behar izan, baina gure familiako kideek ostera bai. Beti izan ditugu gaiaren inguruko gertuko kontakizunak, aitxitek, amamak edota osabaren batek bizi izandakoak. Antzekoak nobela baten jasota topatzea gustuko izan dugun zerbait da.

36ko gerrari hitz egiten den bakoitzean, gehienetan gudariei buruz hitz egiten da, edo Frantziara joan ziren umeei buruz... Baina emakumeek gerran zer jasan zuten, zer sentitu zuten, nola sufritu zuten gutxitan aipatzen da. Berez, "tabua" izan da, baina azkenaldian gai horri garrantzia eman diote eta hitz egiten hasi da.

Gizonezkoak ez ezik emakume asko ere preso egon ziren. Liburuan aipatzen den Gasteizeko kasuak, orain urte batzuk Lekeitioko Saturraraneko kartzelan giltzapetuta egon ziren emakumeen istorioa gogorarazten digu. Gaiaren inguruan, pelikula bat egin zuten *Estrellas que alcanzar*.

- **Bibliografia - webgrafia**

Isilpean gordea. Toti Martínez de lezea. Erein, 2015.

<http://www.erein.eus/libro/isilpean-gordea>

<http://www.eitb.eus/eu/albisteak/bideoak/osoak/3667092/isilpean-gordea-toti-m-de-lezearen-nobela-gerra-osteko-gasteizen/>

<http://www.ahotsak.eus/asteasu/pasarteak/ast-001-009/>

<http://www.hiztegia.net>

<http://atalak.eus/ikasgela-materialak/nola-egiten-da/eleberri-lana/index.html>

<http://atalak.eus/ikasgela-materialak/il-hiztegitxoak/eleberriak-bilduma/isilpean-gordea/isilpean-gordea.pdf>

<http://xuxen.eus/>